

GAZAKO GENOZIDIOA GELDITU MOZIOA

Israelgo estatu sionistaren erabakia, Hamas erakundeak 2023ko urriaren 7an bere lurraldean egindako erasoei erantzuteko, bidezko defentsarako duen eskubidea dela argudiatu zuen. Gaur gaurkoz, argi eta garbi, baliogabetutako argudioa da.

Bonbardaketek eragindako hamarnaka mila hildakoak, gehienak zibilak, 16000 haur baino gehiago erail dituztenak, ehunka mila desplazaturekin, bai eta setiorik ankerrenaren eta gosearen mende dagoen biztanleriak, gizateriaren aurkako krimenez hitz egitera garamatzate, eta ez autodefentsarako eskubideaz.

Azken hilabeteetan, eskola, ospitale eta errefuxiatuen kanpalekuen aurkako bonbardaketak errealitate telebisatu bat dira. Hilketak indiskriminatua eta palestinarren mina gure eguneroko bizikideak dira. Israelgo militarrek eta kolonoek, bai Gazako Zerrendan zein Zisjordanian egindako giza eskubideen abusuak eta urraketak etengabeak dira, eta sakon-sakonean zauritzen gaituzte.

Atzerabiderik gabeko gertakari hauek, nabarmen adierazten digute Israelgo gobernu zein estatuak Gazako Zerrenda okupatzeko asmo agerikoa dutela. Honi guztioni, -NBERen ebazpen guztiei jaramonik egin gabe- Zisjordanian eta Palestinako lurraldean lege kanpoko asentamenduak etengabeko eraikuntza gehitzen badiogu ... ozen eta garbi esaten digu genozidio bati eta palestinar herriaren aurkako garbiketa etniko bati aurre egin behar diogula. Ez da gerra bat, estatu baten basakeria baizik.

Elgetako herriak, Euskal Herriko beste hainbatek bezala, gertutik ezagutzen du bonbardaketek eta errepresioak eragindako mina okupatua izandakoan.

Horregatik guztiagatik, udaletxe honetatik:

- 1- Herri palestinarren sufrimenduagatik gure atsekabea adierazten dugu, bai eta harekiko elkartasuna eta maitasuna.
- 2- Herri palestinarren subiranotasunerako eta lurralde-integritate eskubidea aitortzen dugu
- 3- Irmoki kondenatzen eta gaitzesten ditugu Israelgo gobernuak zein estatuak Gazan eta lurralde palestinarretan egiten dituzten ekintza militarrek eta errepresioa.
- 4- Israelgo gobernuari eta estatuari su-etena eta lurralde okupatuetatik tropak erretiratzea eskatzen diegu, baita apartheid politikarekin amaitzea ere.
- 5- Israelgo gobernuari eta estatuari eskatzen diegu nazioarteko legedia bete ditzatela, bai eta NBEk bere aurka emandako ebazpenak, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea bete dezatela.
- 6- Era berean, Israelgo estatuari blokeoa amaitzeko eta Gazako Zerrendan laguntza humanitarioa sartzen uzteko eskatzen diegu.
- 7- Gure inguruko erakunde guztiei, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Europako Erkidegoari eskatzen diegu Israelgo gobernuari presioa egin diezaiotela neurri horiek har ditzan. Halaber, eragile guztiei bake iraunkorra eta elkarrizketa bidezko konponbidea bilatzeko eskatzen diegu.

8- Konpromisoa hartzen dugu genozidio honetan parte hartzen, sustatzen edo laguntzen duen kultura, kirol, ekonomia eta abarreko jardueretan parte ez hartzeko.

9- Babesa behar duten palestinarrentzat gure herriko ateak zabalik daudela adierazten dugu.